KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA, EUSKO LEGEBILTZARREKO TESTU PARLAMENTARIO EDO JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAK PRESAZ ZUZENTZEKO ETA/EDO GAZTELANIATIK EUSKARARA ETA ALDERANTZIZ ITZULTZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DE LOS SERVICIOS DE CORRECCIÓN Y/O TRADUCCIÓN URGENTE DEL CASTELLANO AL EUSKERA Y VICEVERSA DE TEXTOS PARLAMENTARIOS O JURÍDICO-ADMINISTRATIVOS DEL PARLAMENTO VASCO

1. Xedea

Egin beharreko lana honako hau da: Eusko Legebiltzarreko testu parlamentario edo juridiko-administratiboak presaz zuzentzea eta/edo gaztelaniatik euskarara eta, hala badagokio, euskaratik gaztelaniara itzultzea. Agindu ahal izango da, orobat, argitalpen bereziak zuzentzea eta/edo itzultzea, egokitzat jotzen denean.

1. Objeto

El trabajo consiste en la corrección y/o traducción urgente del castellano al euskera y, en su caso, del euskera al castellano de textos parlamentarios o jurídico-administrativos del Parlamento Vasco. Podrá encomendarse, asimismo, la corrección y/o traducción de las publicaciones especiales que se estime oportuno.

2. EGIN BEHARREKO ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

2.1 Iraupena

Kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da, hura formalizatzen denetik, eta beste bi urtez luzatu ahal izango da.

2.2 Jarraibide linguistikoak

Erabilitako euskara Euskaltzaindiak emandako arau eta gomendioekin bat

2. DESCRIPCIÓN DEL SERVICIO A REALIZAR

2.1 Duración

La duración del contrato será de dos años, prorrogable por otros dos, desde su formalización.

2.2 Pautas lingüísticas

El euskera a utilizar se ajustará a las normas y recomendaciones emitidas por



etorriko da, eta gaztelania Espainiako Errege Akademiak emandako arau eta gomendioekin bat etorriko da. Halaber, nahitaezkoa izango da honako erreferentzia hauek betetzea:

a) Oinarrizko Hiztegi Juridiko-Parlamentarioan jasotako lexikoa.

b) Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduan jasotako terminoak eta izendapenak.

c) Eusko Legebiltzarreko Itzulpen Zerbitzuak zuzenketarako eta itzulpenerako ezarritako irizpide linguistiko eta estilistikoak, bai eta hizkera inklusibokoak ere.

d) Zerbitzu horrek egindako termino- eta izendapen-zerrendak.

Euskaltzaindia, y el castellano, a las normas y recomendaciones emitidas por la Real Academia Española. Asimismo, serán de obligado cumplimiento las referencias siguientes:

a) el léxico recogido en el Diccionario Jurídico-Parlamentario Básico.

b) los términos y denominaciones contenidos en el Reglamento del Parlamento Vasco.

c) los criterios lingüísticos y estilísticos, así como los relativos al lenguaje inclusivo, establecidos para la corrección y traducción por el Servicio de Traducción del Parlamento Vasco.

d) Las relaciones de términos y denominaciones confeccionadas por dicho servicio.

2.3 Kalitatea

Legebiltzarrera igortzen den dokumentu zuzenduaren eta/edo itzuliaren formazko ezaugarriak Eusko Legebiltzarrak bidalitako jatorrizko dokumentuak dituenak bezalakoak izango dira. Testu zuzenduak eta itzuliak berrikusi eta zuzendu egin beharko dira eman aurretik. Akatsik gabe aurkeztuko dira, bai formatu, tipografia eta mekanografiaren aldetik, bai hizkuntza eta estiloaren aldetik ere. Xede-hizkuntzan idazkera natural eta autonomoa izan beharko dute. Jatorrizko testuaren edukia zehaztasunez emango dute,

2.3 Calidad

Las características formales del documento entregado con la corrección y/o la traducción deberán ser las mismas del documento original remitido por el Parlamento. Antes de su entrega, los textos corregidos y traducidos serán debidamente revisados y corregidos en ambos idiomas. Se presentarán sin errores de formato, tipográficos, mecanográficos, lingüísticos o estilísticos. Deberán contener un discurso natural y autónomo en la lengua de destino. Trasladarán el contenido del original con exactitud, reflejarán

hizkuntza-erregistroa egokitasunez islatuko dute eta, hala badagokio, baliokidetza bermatuko dute segurtasun juridikoaren ondorioetarako.

adecuadamente el registro lingüístico y garantizarán, en su caso, la equivalencia a efectos de la seguridad jurídica.

2.4 Entregatzeko epeak

Enpresa adjudikaziodunak Eusko Legebiltzarrak ezarritako epean gauzatuko du zerbitzua.

Nolanahi ere den, enpresa adjudikaziodunak bermatu behar du egun bakoitzeko 10.000 hitz zuzentzeko eta itzultzeko gaitasuna duela.

2.4 Plazos de entrega

La empresa adjudicataria deberá ejecutar el servicio en el plazo fijado por el Parlamento.

En todo caso, la empresa adjudicataria deberá garantizar la capacidad de corregir y traducir 10.000 palabras por día.

2.5 Entregatzeko era

Enpresa adjudikaziodunaren eta Legebiltzarraren arteko jatorrizko dokumentuen eta haien zuzenketen eta itzulpenen trukea bide telematikoz egingo da.

Era berean, enpresa adjudikaziodunak itzulpen-memoriak entregatu beharko ditu, .tmx formatuan, eta Wordfastekin bateragarriak, hala eskatuz gero.

Enpresak nahiko baliabide izango ditu itzuli beharreko dokumentuak honako formatu hauetan eman ahal izateko: .xml, .inx, .idml, .doc, .docx, .rtf, .txt, .odt, .ods, .xls, .xlsx, .ppt, .pptx.

2.5 Modo de entrega

El intercambio de documentos originales y sus correcciones y traducciones entre la empresa adjudicataria y el Parlamento Vasco se hará por vía telemática.

Asimismo, la empresa adjudicataria deberá entregar las memorias de traducción en formato .tmx y compatibles con Wordfast cuando así sea requerido.

La empresa dispondrá de los medios suficientes que permitan traducir documentos con los siguientes formatos: xml, .inx, .idml, .doc, .docx, .rtf, .txt, .odt, .ods, .xls, .xlsx, .ppt, .pptx.

2.6 Txostena

Zuzenketa eta itzulpenarekin batera, honako datuok biltzen dituen txostena eskatu ahal izango da:

a) Zuzentze- eta itzultze-lanean erabilitako termino eta izendapen berrien zerrenda.

b) Zuzentze- eta itzultze-prozesuan parte hartu duten itzultzaile eta zuzentzaileen zerrenda.

2.6 Informe

Junto con el texto corregido y traducido se podrá solicitar un informe con los siguientes datos:

a) Relación de los términos y denominaciones nuevas utilizados en la corrección y traducción.

b) Relación de personal técnico de corrección y traducción participante en el proceso de corrección y traducción.

2.7 Ordainketa

Ordainketarako, entregatutako dokumentu bakoitzaren jatorrizko testuak duen hitz-kopuruari dagokiona ordainduko da. Ordainketa egingo da Administrazio Baldintzen Zehatzen Pleguaren 15. baldintza espezifikoan eta 36. baldintza orokorrean aurreikusitako izapideak eginda eta epeetan.

2.7 Pago

El número de palabras a pagar será el correspondiente al del original de cada documento entregado. El pago se hará efectivo, una vez realizados los trámites y en los plazos establecidos en la condición específica núm. 15 y condición general núm. 36 del Pliego de Condiciones Administrativas Particulares.

3. AURKEZTU BEHARREKO PROPOSAMEN TEKNIKOA

Enpresa lizitatzaileek dokumentazio hau aurkeztu behar dute:

3. PROPUESTA TÉCNICA A PRESENTAR

Las empresas licitadoras deberán presentar la documentación siguiente:

3.1 Zuzenketa- eta itzulpen-teknikarien zerrenda

Eusko Legebiltzarrak igorritako testuen ardura hartuko duten zuzentzaileen eta itzultzaileen zerrenda. Teknikari

3.1 Plantilla de técnicos y técnicas de corrección y traducción

Relación del personal de corrección y traducción que se va a encargar de los textos remitidos por el Parlamento Vasco.

bakoitzari buruz, honako datu hauek adierazi behar dira:

a) Izen-abizenak, eta lanerako telefonoa eta posta elektronikoa.
b) Enpresarekin duten kontratu-harremana eta antzinatasuna.
c) Lanbide-prestakuntza, titulu akademikoak eta hizkuntzetako tituluak adierazita, bai eta egindako sei hilabetetik goragoko ikastaroak ere.
d) Lan-esperientzia zuzenketan eta itzulpengintzan, gaztelaniatik euskarara eta alderantziz, egindako zuzenketa- eta itzulpen-lanak zehaztuta.

De cada técnico o técnica deberán consignarse los siguientes datos:

a) Nombre y apellidos, además del teléfono y correo electrónico de trabajo.
b) Relación contractual con la empresa y antigüedad en ella.
c) Preparación profesional, señalando las titulaciones académicas y de lenguas, y los cursos realizados superiores a seis meses.
d) Experiencia laboral en el campo de la corrección y traducción del castellano al euskera y viceversa, detallando los trabajos realizados en ambos campos.

3.2 Zuzenketaren eta itzulpenaren kalitatea

Kontratu honetarako propio hautatutako bi testu zuzendu eta itzuli beharko dituzte enpresa lizitatzaileek, betiere agiri honetako 2.3 puntuan ezarritako kalitatezko betekizunekin bat etorrita.

Eusko Legebiltzarrak proposatutako testuak enpresa lizitatzaileen eskura egongo dira Eusko Legebiltzarreko kontratatzailearen profilean, Kontratazio Publikoa Euskadin plataformaren baitan, eta, horrekin batera, haiek adierazitako helbide elektronikora bidaliko dira, B

3.2 Calidad de la corrección y traducción

Las empresas licitadoras deberán presentar la corrección y traducción de dos textos seleccionados expresamente para este contrato, de acuerdo con los requisitos de calidad establecidos en el punto 2.3 de este pliego.

Los textos propuestos por el Parlamento Vasco estarán a disposición de las empresas licitadoras en el perfil de contratante del Parlamento Vasco, obrante en la plataforma Contratación Pública en Euskadi; además serán remitidos a la dirección electrónica indicada por

gutun-azala (gaitasunari eta kaudimenari buruzkoa) aztertu ondoren.

Bi testuen zuzenketa eta itzulpena Eusko Legebiltzarrak igortzen dituen testuen ardura hartuko duen taldeko zuzentzaileek eta itzultzaileek egin eta sinatu beharko dute. Testuak Kontratazio Publikoa Euskadin plataformaren bidez ere (kontratatzailearen profilean) entregatuko dira, word formatuan, gehienez ere 26 orduko epean, enpresa lizitatzaileen eskura dauden unetik kontatuta.

3.3 Kudeaketa-prozesuaren proposamen zehatza

Ezarritako helburuak bermatzen dituen kudeaketa-prozesuaren proposamen zehatza aurkeztuko da. Proposamenean, enpresaren lan-sistema azalduko da, betiere honako alderdi hauek jasota:

a) Enpresaren zuzenketa- eta itzulpen-gida

Enpresak zuzenketa- eta itzulpen-gidarik ez badu, txosten bat aurkeztu beharko du, non enpresako zuzentzaileek eta itzultzaileek jarraitu beharreko eredu eta irizpideak azalduko diren. Jarraibide orokorrekin batera, enpresak bere

aquellas, una vez examinado el sobre B (de capacidad y solvencia).

Los dos textos deberán ser corregidos y traducidos, así como firmados, por los miembros del equipo que se encargarán de la corrección y traducción de los textos que remita el Parlamento Vasco, y se entregarán en formato word, igualmente a través de la plataforma Contratación Pública en Euskadi (perfil de contratante), en un plazo máximo de 26 horas a partir de la puesta a disposición de las empresas licitadoras.

3.3 Propuesta detallada del proceso de gestión

Se presentará una propuesta detallada del proceso de gestión encaminado al aseguramiento de los objetivos establecidos en la que se expondrá el sistema de trabajo de la empresa, incluyendo los aspectos siguientes:

a) Guía de corrección y traducción de la empresa.

Si la empresa carece de ello, deberá presentar un informe que recoja los modelos y pautas a seguir por los técnicos y técnicas de traducción y corrección de la empresa. Junto con las directrices generales, será necesario consignar

itzultzaile eta zuzentzaileei ematen dizkien argibide zehatzak ere adierazi behar ditu: aholkuak, oharrak, adibideak, akats-zerrendak, kalkoak, estiloak eta abar.

b) Zuzenketa- eta itzulpen-sistematika

Zuzenketa- eta itzulpen-prozesuan ezarritako sistematika azaltzen duen txostena aurkeztu beharko da: berrikuste- eta zuzenketa-mailak, batasun terminologikoa ziurtatzeko sistema, estilo-batasuna bermatzeko modua eta abar.

c) Ekipamendu teknikoa

Datu zehatzak aurkeztu behar dira enpresako ekipamendu teknikoari buruz, hala nola programa eta itzulpen-memoriarekin lan egitea ahalbidetzen duten aplikazio informatikoak, datu-baseetarako sarbideak, lexikoa egiaztatzeko tresnak eta, oro har, kontratua gauzatzearekin zerikusia duten eta zuzenketa- eta itzulpen-lana eraginkortasunez eta gaitasunez egitearekin lotuta dauden alderdiak.

4. PROPOSAMEN EKONOMIKOA

4.1 Baldintzak

también las instrucciones concretas que la empresa da a sus técnicos y técnicas de corrección y traducción: consejos, indicaciones, ejemplos, lista de errores, calcos, estilos, etcétera.

b) Sistemática de corrección y traducción

Deberá presentar una memoria descriptiva de la sistemática implantada en el proceso de corrección y traducción: niveles de revisión y corrección, sistema para asegurar la unidad terminológica, modo de garantizar la unidad de estilo, etcétera.

c) Equipamiento técnico

Deben ofrecerse datos concretos sobre el equipamiento técnico de la empresa referidos a programas y aplicaciones informáticas que permitan traducir con memorias de traducción, acceso a bases de datos, herramientas de verificación léxica y, en general, todos aquellos aspectos asignados a la ejecución del contrato que hagan más eficiente y competente la tarea de corregir y traducir.

4. PROPUESTA ECONÓMICA

4.1 Condiciones

Enpresa lizitatzaile bakoitzak bere prezio-proposamena egingo du, hitzeko, BEZik gabe. Gehienez ere, hitzeko prezioak ez du 0,18 € gainditukо.

Cada empresa licitadora hará una propuesta de precio por palabra, IVA excluido. En todo caso, el precio máximo por palabra no superará los 0,18 €.

4.2 Eskaintza

Enpresa lizitatzaileek proposamen ekonomikoaren ereduaren arabera aurkeztu beharko dute eskaintza.. Eskaintzan gastu guztiak sarturik egongo dira, zuzenak zein zeharkakoak, eta dagokion BEZ aparteko partida izango da.

4.2 Oferta

Las empresas licitadoras deberán presentar su oferta de acuerdo con el modelo de propuesta económica. En la oferta se entenderán incluidos todo tipo de gastos, directos e indirectos, siendo el IVA correspondiente una partida independiente.

5. BALIOESPENA

5. VALORACIÓN

5.1 Balio-judizioen mende dagoen balioespenaren irizpideak

a) 3.2 puntuan aipaturiko zuzenketa eta itzulpenaren kalitatea, Itzulpen Zerbitzuak balioetsiko duena: 20 puntu. Kalitate teknikoaren proba honetarako eskatzen den gutxieneko puntuazioa 12 puntukoa da. Puntuazio hori lortzen ez duen enpresa baztertuta geratuko da, eta ez zaio A gutun-azala irekitzeari ekingo.

b) 3.3 puntuan adierazitako kudeaketa-prozesua: 1,25 puntu.

c) Kontratu honetako zuzentzaile eta itzultzaileen lanbide-prestakuntza eta lan-

5.1 Criterios de valoración sometida a juicios de valor

a) Calidad de la corrección y traducción referida en el punto 3.2, que será valorada por el Servicio de Traducción: 20 puntos. La puntuación mínima requerida en esta prueba de calidad técnica es de 12 puntos. La empresa que no obtuviera esta puntuación quedará excluida, y no se procederá a la apertura del sobre A.

b) Proceso de gestión señalado en el punto 3.3.: 1,25 puntos.

c) Preparación profesional y experiencia laboral de los técnicos y técnicas de corrección y traducción asignados al

esperientzia, 3.1 puntuan adierazitakoak: 1,25 puntu.

5.2 Formula matematikoen araberako balioespen-irizpideak

4.1 puntuan ezarritakoaren arabera prezio/hitzeko: 27,5 puntu.

Formula: ((EMP / BEP)×27,5)
EMP = eskaintza merkeenaren prezioa
BEP= balioetsi beharreko eskaintzaren prezioa

5.3 Adjudikazioa

Kontratuaren adjudikazioa Eusko Legebiltzarreko Mahaiari dagokio, Eusko Legebiltzarreko kontratazio-organoaren proposamenaren arabera. Kontratazio-organoak, behar izanez gero, gaian adituak diren teknikariei aholkua eskatu ahal izango die bere eginkizuna betetzeko.

6. KONTRATUA GAUZATZEA

6.1 Aldaketak

Enpresa adjudikaziodunak idatziz jakinarazi beharko du proposamen teknikoan adierazitako datuen edozein aldaketa.

6.2 Zuzenketa

Eusko Legebiltzarrak uste badu zuzenketa edo itzulpenen batek gutxieneko kalitate-eskakizunak ez dituela betetzen,

contrato, referidas en el punto 3.1.: 1,25 puntos.

5.2. Criterios de valoración sometida a fórmulas matemáticas

Precio por palabra, ajustado a lo establecido en el punto 4.1.: 27,5 puntos.

Fórmula: ((POE / POV)×27,5)
POE = precio de la oferta más económica
POV= precio de la oferta objeto de valoración

5.3 Adjudicación

La adjudicación del contrato corresponderá a la Mesa del Parlamento Vasco, a propuesta del órgano de contratación del Parlamento Vasco, que para el desempeño de su función podrá recurrir, de ser preciso, al asesoramiento de personal técnico experto en la materia.

6.EJECUCIÓN DEL CONTRATO

6.1 Variaciones

La empresa adjudicataria deberá comunicar por escrito cualquier variación de los datos declarados en la propuesta técnica.

6.2 Rectificación

El Parlamento Vasco se reserva el derecho a requerir de la empresa adjudicataria, sin coste adicional alguno,

eskubidea izango du enpresa adjudikaziodunari testu-zuzenketa edo -itzulpena zuzenarazteko, kostu gehigarririk gabe.

la rectificación de toda corrección o traducción que no cumpla, a su entender, los requisitos mínimos de calidad exigibles.

6.3 Konfidentzialtasuna

Zuzentzeko edo itzultzeko igortzen diren dokumentu guztiak isilpekoak dira, eta, ondorioz, sekretu profesionalez jardun beharko da. Dokumentu horiez baliatu, horiek aldatu, kopiatu, hedatu, besteri utzi eta/edo bestek erabiliz gero, horretarako baimenik izan gabe, indarrean den ordenamendu juridikoan zehazturik den erantzukizunari egin beharko zaio aurre.

6.3 Confidencialidad

El contenido de todos los documentos que se remitan para su corrección y traducción es de carácter confidencial y, por lo tanto, queda sometido al secreto profesional. Su utilización, alteración, reproducción, difusión, cesión a terceros y/o uso, sin la debida autorización, dará lugar a las responsabilidades que se deriven en la aplicación del ordenamiento jurídico vigente.

6.4 Kontratua suntsiaraztea

Legean aurreikusitako kausa orokorrez gain, kontratua suntsiaraziko da honako kausa hauetako edozeinengatik:

– Eusko Legebiltzarreko Itzulpen Zerbitzuaren iritziz, zuzenketak edo itzulpenak behar den kalitate eta zehaztasunik ez izatea.
– Lana ezarritako epean ez entregatzea.
– Presako lan bat egiteari uko egitea.
– Kontratuan ezarritako beste edozein baldintza ez betetzea.

6.4 Resolución del contrato

Además de por las causales generales previstas por la Ley, el contrato se resolverá por cualquiera de las siguientes causas:

– La falta de calidad y fidelidad exigida y apreciada por el Servicio de Traducción del Parlamento Vasco.
– El incumplimiento del plazo fijado.
– Rechazar la realización de un trabajo urgente.
– El incumplimiento de cualesquiera otras condiciones establecidas en el contrato.